

noaua

**Urtarrilean zozkatuko
dituzte Ugartondoko
etxebizitzak**

**Larunbat honetan
inauguratuko da
Errautsen Parkea**

**Jostailu Erabilien
Azoka**



**Sagardo eta babarrun
onena hautatzeko garaia**

URDAIRA
Sagardotegia

Abenduak 16, LARUNBATA
BARRIKOTEA
20.00h Urdairan

Aginaga 943 37 26 91

URTINEA

Gabonetan...
pazko loreak,
gabon zuhaitzak,
apaingarriak..

igandetan irekia!

San Esteban auzoa, Usurbil 943 36 22 55

ARRATZ
zabaleta anaiak

25 urtez baserritar eta Arrantzaleekin zuzenean lan egiten
·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04

Albistea iruditan

Haizeteen kalteak



Kalezarren, Sokorroko Amaren ermitaren zati bat behera jausi zen. Frontoian, Etxebeste kalera ematen duen ezker hormako atzealdeko babes lanak egiten dituen estalkia hautsi zuen.

Abenduaren 10eko haize boladek begi bistako ondorioak utzi zituzten Usurbilen. N-634 errepidean nahiz herrian, hainbat txokoetan zuhaitz adarrak

eta hostoak lurrean sakabana-tuak nonahi. Haizeak kalteak ere eragin zituen. Frontoian, Etxebeste kalera ematen duen ezker hormako atzealdeko ba-

bes lanak egiten dituen estalkia hautsi zuen.

Igande goizean bestalde, Kalezarko sarreran, Haur Eskola eta Puntapax Eguneko Zen-

troaren eta Sokorroko Amaren ermitaren artean dagoen santutxo edo "ospitaltxikiko" teilatuaren zati bat behera jausi zen.

Laburrean

Urteko azken NOAUA!, abenduaren 22koa

Abenduaren 22an argitaratuko dugu urteko azken astekaria, gabonetako gehigarriarekin eta 2018rako egutegiarekin. Zorion agur edo oharrik baldin baduzue, helarazi erredakzioa@noaua.eus helbidera edo deitu hona: 943 360 321.

Inauteri Festarako gaia proposatzeko epea, ixtear

Bordatxo, Txirristra, Benta, Txiriboga, Txapeldun, Guria, Artzabal eta Aitzaga tabernetan jarritako zerrendetan egin dezakezue zuen ekarpena abenduaren 18ra arte. Bestela, bidali zuen ekarpenak elkarte@noaua.eus helbidera.

Odola emateko deialdi berria: urtarrilak 8

Abenduaren 8an ospatu zuten odol emaleen egun handia. Lanean jarraitzeko asmo sendoa dute eta dagoeneko hitzordu berri bat ipini dute: urtarrilaren 8a astelehena, 18:00etatik 20:30era ambulatarioan.

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberrri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordintzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

María Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia:

Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



Garazi Lizaso Manterola

Euskara eta generoa II

Aurreko astekariko gaiari tiraka, hartu hiztegia eta begiratu ondorengo hitzak: *txolin*, *baldraska*, *matraka*, *pinpirin*, *pertxenta*, *poxpolin*, *panpox* edo *panpoxa*... Hitz horietako asko emakumeekin soilik erabiltzen dira eta antzerako esanahiak dituzte. Finean, itxura atseginarekin, berritsua eta txoriburua izatearekin erlazionatuta daude. Zein generori aplikatzen zaizkio horiek? *Eta polita*, *liraina*, *apala*, *liluragarria*, *delikatua*, *sentibera*? Zein generori, aldiz, *indartsua*, *ausarta*, *bortitza*?

Hiztegia eskuetan duzuela aprobetxatuta, bilatu *gizon* eta *emakume*. Alde handiak aurkituko ditugu bai sarren tamainan (emakume hitzarena askoz laburragoa delako) bai azaltzen diren espresioen aukeraketan. Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua*-n, esaterako, *emakume* hitzaren sarrera dezente motzagoa da eta *gizon* hitzaren bigarren adiera orokorra da, hau da, gizaki guztiontzat baliokide bezala aurkezten du *gizon* terminoa. Jakin badakigu, ordea, ez dela horrela.

Bi hitzak Hiztegi handiak jasotzen dituen bezala transkribatuz gero, aldea argia da: *Mujer*, *mujer de la calle*, *mujer de la vida* eta *mujer*

pública. *Hombre*, *de hombre a hombre*, *hacer(se) un hombre*, *¡hombre al agua!*, *¡pobre hombre!*, *portarse como un hombre*, *el hombre de la calle*, *hombre anuncio*, *hombre de bien*, *hombre de Cro-Magnon*, *hombre de estado*, *hombre de mundo*, *hombre de negocios*, *hombre de paja*, *hombre de palabra*, *hombre de pro*, *hombre del tiempo*, *hombre lobo*, *hombre orquesta* eta *hombre rana*. Nola da posible “hombre” azaltzeko horrenbeste esapide aurkitzea eta horren gutxi “mujer” adierazteko eta denak ‘prostituta’ adierarekin?

Bestalde, “mari” osagaia dugu, ez du baliokide maskulinorik. Hainbat hitz elkarrekin osatzeko erabiltzen da, besteak beste, *mari-mutil*, *mari-maistra*, *mari-matraka*, *mari-purtzil*, *mari-apain*, eta *mari-zirtzil*. Goenkale telebistaileko Maria Luisari entzun dizkiogu horietako asko eta den-denak konnotazio negatiboa dute.

Euskarazko esapideak ere aipatzekoak dira. Batzuk gizonetzkoekin lotuta daude eta orokor moduan erabiltzen dira; emakumeekin lotutakoekin, berriz, ez da halakorik gertatzen. Adibidez, *jaun eta jabe* (eta ez “andre eta jabe”), *maisulana* (ez “maistralana”), *txapela buruan ibili munduan* (eta ez, adibidez, “zapia buruan ibili mun-

duan”)... Kontrako adibidea da “ama-hizkuntza” espresioa. Gaur egun, hainbat ahots aldarrikatzen ari dira “familia hizkuntza” edo “lehenengo hizkuntza” erabili behar dela, aitek ere hizkuntza irakasten dutela argudiatuta. Interesgarria da ikustea horrelako kritikarik ez dela sortu “jaun eta jabe” eta beste adibideekin.

Horrekin lotuta, gogoratu dut Bertsolari Txapelketa Nagusia ate-joka dugula eta BEC ere beteko dutela usurbildarrek. Euskararekin ere betaurreko moreak janzteari ekin diodan honetan, ‘txapelketa’ hitzak begirada okertu dit.

Izan ere, hamaika ideia gurutzatu zaizkit ganbaran. Txapelketa lehiarekin lotuta dago. Norgehiagoka egiten dute hainbat pertsonen oholtza gainean, kalean edo edozein tokitan. Nonahi dela ere, espazio publikoa bereganatzen dute. Eta nork izan du espazio publikoaren erabilera eskusiboa gaurdaino? Eta nork jantzi izan du, tradizionalki, txapela? Bietan erantzuna bera da: gizonetzkoek.

Beste adar bati heltze aldera, atsotizetara egingo dugu salto. “Ahuntza, atsoa eta emakumea, teman ez ditu inork irabaziko”. *No comment*. Esaera zahar gehiago testuan ez sartzea erabaki dut. Haien eduki misoginoa erabat desegokia eta iraingarria delako.

rria delako.

Gehiago luzatu gabe eta amaitzeko, hizkuntza baino hizkuntzaren erabilera dela sexistea esan nahi dut. Hain zuzen ere, jendartea erabat bustitzen duen ikuspegi sexistaren ondorio da. Generoei egotzen zaizkien rolen eta ezaugarrien bereizketa presente dago une oro. Emakumeak lotzen dira estetikarekin, izaera pasiboarekin, etxearekin eta familiarren zaintzarekin. Gizonari adimena, indarra, kalea eta mundu publikoa dagozkio. Beraz, fenomenoaren gakoa ez dago hizkuntzan, hiztunen errepresentazio mentalean baizik. Bestela esanda, gakoa mezuen edukia bera da eta ez hizkuntza; hizkuntza ikuspegi hori islatzeko modua edo tresna besterik ez da.

PD: *Apropos ez naiz pertsonen izenekin sartu. Euskaltzaindiaren izendegiaren sarreran azaltzen da izenen sexu bereizketa beharrezkoa dela. Horrela, bi izen zerranda daude: emakumeentzat eta gizonentzat. Ez da izenik agertzen bi generoen pertsonen jar dakiekeenik. XXI. mendeko atzerapauso honen aurrean, esan beharra dago errealitateak, beste behin ere, aurre hartu digula.*

Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Idoia Torregerai | Luken Arkarazo

Urtarrilaren 25ean zozkatuko dira Ugartondoko babestutako etxebizitzak

Aurreko astean zabaldu zuen albistea Udalak: “Ugartondoko eremuan eraikiko diren 46 etxebizitza tasatu eta babes ofizialeko 46 etxebizitza, bere garaje eta trastelekuekin, esleitzeko zozketan parte hartuko duten behin betiko zerrendak onartu dira. Hala, etxebizitza horien zozketa urtarrilaren 25ean, ostegunez, egingo da”.

Zozketan parte hartzeko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendei ipinitako erreklamazioei erantzun die Udalak, bai eta onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartu ere.

Oiaro kiroldegian egingo da zozketa

Etxebizitzak zozkatzeko eguna ezarrita geratu da: 2018ko urtarrilaren 25ean osteguna egingo da zozketa. Arratsaldeko 18:00etan, Oiaro kiroldegian, ekitaldi publikoan.

92 etxebizitza eraikiko dira

46 babes ofizialekoak izango dira, eta beste 46ak, tasatuak. Babes ofizialeko etxebizitzetan bi logelako 20 etxebizitza (horietako bi ezinduentzat egokituak) eraikiko dira, eta hiru logelako 26 etxebizitza. Tasatutakoetan ere, beste horrenbeste.



Zozketa Oiaro kiroldegian egingo da. Urtarrilaren 25ean osteguna, arratsaldeko 18:00etan.

ESKAERA KOPURUAK

“Babes ofizialeko etxebizitza bat erosteko nahia 110 usurbildarrek azaldu zuten, eta eskaera horietatik 89 izan dira onartuak.

Aldiz, etxebizitza tasatuetarako 47 lagunek egin dute eskaera, eta horietatik erdiak pasatxo onartu dira, 28 guztira”

Zozketak, profil ezberdinen araberakoak

Bai babes ofizialeko etxebizitzetan bai tasatuetan, batzuk gizarte-sektore batzuei zuzenduta egongo dira:

■ Bi etxebizitza ezinduentzat gordeko dira.

■ 70 urte edo gehiago dituzte-

nentzat 4 etxe.

■ Babes bereziko gizarte-sektoreentzat 5 etxebizitza (euren kargura adingabeak dituzten guraso bakarreko bizikidetzak unitateak, indarkeria matxistaren biktimak, bananduak, dibortziatuak eta alargunak, eta ezintasun psikikoa dutenak).

■ 35 urte beherakoentzat 10 etxebizitza.

Guztira, 157 eskaera

Eskatzaileak aipatutako kupo batean soilik eman zezakeen izena. Babes ofizialeko etxebizitza bat erosteko nahia 110 usurbildarrek azaldu zuten, eta eskaera horietatik 89 izan dira onartuak. “Hala, 59 gazte daude 35 urtetik beherakoentzat gorde diren (10 guztira) etxebizitzetan zerrendan, 8 lagun daude babes bereziko gizarte-sektoreentzat

zuzendu diren etxebizitzetan zerrendan (5 guztira), eta gainerrako 22ak kupo orokorrekoak dira. Edozein kasu, kupo horiei dagozkien etxebizitzarik tokatuko ez balitzaiok, zerrenda orokorreko zozketan beste aukera bat izango luke”, udal iturriek aditzera eman dutenez.

Tasatuetan, eskaeren ia erdia ez da onartua izan

Bestetik, etxebizitza tasatuetarako 47 lagunek egin dute eskaera, eta horietatik erdiak pasatxo onartu dira, 28 guztira.

Gazteentzat gorde diren etxebizitzetan zozketan 15ek parte hartuko dute (10 gorde dira guztira), babes bereziko gizarte-sektoreen zozketarako bi lagunek (5 gorde ziren), eta zerrenda orokorrekoak, aldiz, 11 dira.

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUISIA 10- atzekoaldea
943 372 795

ANTXETA
taberna-jatetxea
eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Patxi
Patxi jatetxea
bazkariak EGUNERO
afariak, asteazkenetik larunbatara
© 943 362725 • © 688 690 361


Okindegia-Gozetegia
LABE-GOXO

Errautsen Parkea larunbat honetan inauguratuko da

Amaitu dituzte hilerri berriko Errautsen Parkea egokitzeko lanak. Gogoan izan, hilerri zaharreko eta etorkizuneko usurbildarrak modu anonimoan uztea ahalbidetuko du gune berri honek. Bertan gainera hileta zibilak era irekian egiteko aukera izango da. 120.000 euro bideratu ditu Udalak lanotara.

“Hilerri zaharra hustutzen aritu da azken hilabeteetan Udalak. Ez da erraza izan prozesua. Nahi baino mantsoago joan da. Ia 800 gorpu zeuden lurperatuta, eta Udalak senide guztiakin jarri da harremanetan banan bana, gorpuak atera zitzaten eskatuz. 240 gorpu atera dituzte senitartekoei. Oraindik, ordea, 500 gorpu inguru daude hilerri zaharrean, eta hilotz horiek Udalaren gain gelditu dira, familiartekoei eskatu ez dituztenak, hain zuzen ere. Hilotz horiek erraustu egingo dituzte, eta ondoren Errautsen Parkean utziko dituzte, modu anonimoan. Edozein kasu, erabilera ez da horretara mugatuko. Izan ere, aurrerantzean gorpuak erraustu eta errautsak han, modu anonimoan, zabaldu nahi dituzten usurbildarrek ere erabili ahal izango dute gune hori. Bestalde, kolunbarioetan dauden errautsak, behin 10 urteko epea amaituta, han utziko dira ere”, argitu dute Udaletik.

Errautsen Parkeko lanak bukatuta, gune berria inauguratzea doaz. Larunbaterako, abenduaren 16rako finkatu du inaugurazio ekitaldia Udalak, eguerdiko 13:00ean. “Herritarrei gerturatzeko deia luzatu nahi die Udalak. Toki atsegina eta polita geratu da, eta herritarrei tokiaz gozatzeko aukera eman nahi die. Ekitaldiaren ostean mokadu txiki bat egiteko



Errautsen Parkea hilerri berrian dago. Udalak 120.000 euroko inbertsioa egin du.

EKITALDI IREKIA

“Herritarrei gerturatzeko deia luzatu nahi die Udalak. Ekitaldiaren ondoren mokadu txiki bat egiteko aukera izango da”

aukera izango da”.

Gunea egun horretan inauguratuko den arren, Udaletik argitu dutenez, “oraindik ez da egongo erabilgarri” gutxienik 2018. urte hasierara

arte. Gune berri hau eraikitzeak 2007az geroztik Udalak indarrean zuen hilerriaren erregimen eta funtzionamendu araudia aldatzea ekarri du. Araudi aldaketa hasieraz onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz, azaroaren 30eko osoko bilkuran, EHBildu eta PSEren aldeko bozkekin. EAJren udal ordezkariak abstenitu ziren. Ordenantza aldatua jendaurrean jartzekoa zuten 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharramunetik zenbatzen hasita.

Tarte horretan erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, ordenantza aldaketa hau behin betiko onartutzat joko da.

Inauguraziora hurbiltzeko autobus zerbitzua antolatu da

Errautsen Parkearen inaugurazio ekitaldira joateko bus-taxi zerbitzua antolatu du Usurbilgo Udalak. Hilerri berrira garraio zerbitzu honetan igotzeko aukera izango da 12:30etan eta 12:45ean San Inazio kaleko autobus geltokitik.

Hileta zibilak egiteko aukera

Araudi aldaketa aipatu moduan, Errautsen Parkea sortzeak eragin du, hilerri berriaren handitzea ekarri baitu. Baina azken aldiaren hobekuntza gehiago ere onartu ditu Udalak.

Tasak egokitzeaz gain, hileta edo omenaldi zibilak egiteko 2010ean onarturiko ordenantza ere egokitu beharra ikusi du Usurbilgo Udalak. Hainbat

hobekuntza txertatzea erabaki dute. Hileta edo omenaldi zibilak gune gehiagotan eta ordutegi zabalagoan antolatzeke hobekuntzak hain zuzen. Orain arte hilerri berriko tanatorioan edota itxiturekin Askatasuna plazan antolatu zitezkeen hileta zibilak. Aurrerantzean baita Sutegiko auditorioan eta Errautsen Parkean ere, astelehenetik la-

runbatera, goiz (11:00-13:00) edota arratsaldean (18:00-20:00). Aipatu udal ordenantza hau hasieraz aldatzea onartu zuen aho batez udalbatzak, urriaren 31ko osoko bilkuran.

Hobekuntza guztiok araudi aldaketa honekin borobilduko direla berri eman zuen udal gobernu taldeak, azaroaren 30eko osoko bilkuran.

12 tonatik gorako ibilgailuei Txokoaldeko zubitik igarotzea debekatu zaie

Txokoaldeko zubitik ezingo dira igaro aurrerantzean, 12 tona edo gehiagoko ibilgailuak. Zubi honetatik igarotzea debekatua dute udaltzaingoan zubiaren alde banatan jarriak dituen seinaleek gogorarazi moduan, Usurbilgo Udaletik ohartarazi dutenez.

“Erabaki hori hartu du Udalak, ingenieritza-bulego batek, Udalaren enkarguz, egin berri duen txosten tekniko batean oinarrituz. Azterketa horren arabera, zubiari eusten dioten zutabeak egoera onean daude. Oria ibaiaren korrante edota uholdeek ez diote eragin. Hatik, gaineko zolua kaltetuta dago, eta, segurtasuna bermatu ahal izateko, tona handiko kamioiei pasabidea galarazi zaie”, berri eman dute Udaletik.

Debekuak Berriolari ez dio eragingo, “aitzitik, hondaki-



Seinale berriak ipini dituzte. Bestalde, zubia konpontzeko proiektu-zirriborro bat du mahai gainean Udalak.

nak biltzen dituzten kamioiei eragingo die, 12 tona baino gehiagokoak direlako, eta horrek ibilbidea aldatzea ekarriko du”.

Zubiaren egoera aztertzeaz gain, zubia eraberritzeko proiektua ere landu du aipaturiko ingeniaritza-bulegoak. “Zubia

konpontzeko proiektu-zirriborro bat du dagoeneko Udalak”, berri eman dute.

Udal aurrekontuak, osoko bilkurara

Eragile politikoekin nahiz herritarrekin auzoka eginiko bi-

lera errondan ekarpenak jaso ondoren, 2018rako udal aurrekontuak bozkatzera doaz udal taldeak. Aldaketarik ez bada, abenduaren 19an, datoren asteartean, arratsaldeko 18:00etarako deitu duten ezohiko osoko bilkuran izango da.

Aginagako eta Zubietako eskolak greban

Haureskolak Partzuegoko hezitzaile eta langileek egin zuten greba lehenbizi, sukaldari eta garbitzaileek segidan, Heziketa Bereziko Hezitzaileek ere bai, eta azaroaren 30ean irakasleen txanda izan zen. Greba eguna zuten azaroaren 30a unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoko hezitzaileek. Greba deialdi honen jarraipena erabatekoa izan zen Aginagako eta Zubietako eskoletan. Ikasgelak hutsik zeuden. Ikaslerik ez, ezta hezitzaileek ere lanean.

Mobilizazio urte hau, ELA, LAB eta STEILAS sindikatuek deituta EAeko unibertsitatez



Grebaren jarraipena erabatekoa izan zen Aginaga eta Zubietako eskoletan.

kanpoko hezkuntza publikoan abenduaren 12an egindako greba orokorrarekin borobildu zuten.

Benetako negozioazio prozesu baten eske

Greba eta mobilizazio hainbat egin zituzten aurreko ikastur-



tean unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoko ikastetxe, langile, guraso eta ikasleek, “azken urteetan pairatzen ari garen egoera larria salatu asmoz eta egoerari buelta emateko ezinbestekotzat jotzen ditugun neurriak plazaratu asmoz”, sindikatuen esanetan. Aldiz,

Eusko Jaurlaritzak, gaurkoz “sektore ezberdinetako Negoziazio Mahaiak deitzeko ariketa formala egin duen arren, egoera larri honi buelta emateko inolako neurri zehatzik ez du ezarri mahai gainean”.

Sektore honetatik eginiko aldarrikapen eta proposamenen inguruko benetako prozesua abiatzea eskatzen dute. Gaurkoz halakorik ez dagoenez, mobilizazioak mantentzea beste biderik ez dutela adierazia dute.

Hezkuntzarako inbertsioa hobetzea, langileen lan baldintzak hobetzea edota hezkuntza eredu propio baten alde egi- tea eskatzen dute, LOMCE eta Heziberri alboratuta.

Gastroenteritis broteaz galdezka

Azaroaren 30eko udalbatzaren osoko bilkura amaitzeaz zela, galdera-eskaeren tartean, galdera sorta luzatu zion EAJ udal taldeak udal gobernu taldeari, hainbat usurbildarrek berriki bizi izandako gastroenteritis broteaz. Gai honi buruzko argibideak eskatu zituzten jeltzaleek, udal gobernu taldeak eginiko kudeaketa kritikatzearrekin batera.

Hasteko, epeen kudeaketaz gehiago jakin nahi izan zuten. Utzikeria egotzi zioten udal gobernu taldeari. “Utzikeria aipatu duzu. Nahiko doakoa da”, adierazi zion alkateak Andoni Atxega jeltzaleari. Xabier Arregik gogorarazi zion azaroaren 12-13ko gastroenteritis brotea zerk eragin zuen, lehen zantzuen berri ez zutela izan azaroaren 16ra arte. Eta ostegun hartan bertan, lagin batzuetan, agian Erroizpeko ura izan zitekeela adierazi zion Osasun Sailak Usurbilgo Udalarari.

Ziurtasunik gabe, baina Erroizpeko urak eragindako brotea izan zitekeela ikusita, iturriko ura ez edatea aholkatzzen zuten bandoa kaleratu zuten Udalak. Erabaki hau Osasun Sailak “agindu gabe” hartu zuela gaineratu zuten



Azarako plenoan galdera sorta luzatu zion EAJ alderdiak udal gobernuari.

PLENOAN

Ura zerk kutsatu zuen galdetu zieten jeltzaleek EHBilduko ordezkariak. “Ez dakigu. Ez da erraza detektatzen”, erantzun hori jaso zuten

alkateak azken osoko bilkuran, modu prebentiboan alegia. Egun hartatik herri osoa Añarbeko ura edaten ari da.

Arriskuak minimizatzea, helburua

Gai honetan informazio falta izan dutela adierazi zuten jeltzaleek, gaiak udal ordezkarien arteko bilera monografikoa eskatzen zuela eta informazioa hedabideei haiei baino lehena-go ematea egotzi zioten udal gobernu taldeari.

Udal gobernu taldeak erantzun argia eman zioten, “gu ez gaude jendearen osasunarekin jolasteko”. Gai honekin bizitakoak egun zailak izan direla eta egoera ahalik eta txukunen kudeatzen ahalegindu direla nabarmendu zuten. Helburu argi batekin lan egin zutela; arrisku guztiak minimizatzeke asmoz.

Informazioa eskatu zaie-nean, erreparorik gabe informatzeko prestasun osoa izan dutela gaineratu zuten. Hedabideetan izandako presentzia jarri zuten adibide gisara. Halere, “harremanetan egon garenean” eta informazioa eskatu aurretik halako balorazioak egitea ulergaitza egiten zitzaizela adierazi zioten udal gobernu taldeko kideek EAJ-ko ordezkariak.

Arrazoa argitzeke

Ura zerk kutsatu zuen ere galdetu zioten jeltzaleek EHBilduko ordezkariak. “Ez dakigu. Ez da batere erraza detektatzen”, erantzun zioten udal gobernu taldeak. Unea udalderri honetan ura nondik edaten den argitzeko baliatu zuten EHBilduk. Zubietako Kaxkoan, Kalezarren, Txikierdin eta Arratzain inguruetan izan ezik, ohiko egoeran udalderri honek Erroizpetik edaten duela ura. Brotea azaleratu zen egunetan herritarrek Erroizpeko ura ari zirela edaten udalderrian. Orduetik, aipatu moduan, Añarbeko ura edaten ari da herri osoa.

Uren kontrola norik kudeatzen duen ere galdetu zuten EAJ-k; Añarbetik datorren ura Añarbe Urak-ek. Erroizpekoa Udalak. Kontrolak eguneroak direla adierazi zuten. Baina bigarren kontrol bat ere badute EAE-ko ur guztiek; Osasun Sailak edo Jaur-laritzako sail honek esleitura, beste entitate batek egiten dituenak. Usurbilgo ur guztien kasuan, Añarbak du bigarren kontrol lanon erantzukizuna.

Aurreko egunetan adierazi bezala, gertatu dena arazo puntuala izan da, “ezohiko egoera baten aurrean gaude” nabarmendu zuten udal gobernutik.

“Borroka feministaren aldeko konpromisoa berretsi nahi dugu”

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Egunari lotuta, indarkeria matxistaren aurkako bi adierazpen onartu zituen udalbatzak, azaroaren 28ko osoko ohiko bilkuran. Batetik PSE-k aurkezturikoa, EUDEL-ek (Euskadiko Udalen Elkarteak) onartua duena aurkeztu zuen. EHBilduk ere gai honi lotutako adierazpena aurkeztu zuen. Biak aho batez onartu zituzten.

Neurri estrukturalen alde
PSE-k aurkezturiko adierazpe-

nak, indarkeriak eragindako emakume biktimekiko erreparazio-eskubidearen aitortza eta horri buruzko hausnarke-ta egiteko konpromisoa hartzen du; konpromisoa baita “udaletan plan eta neurri estrukturalak hedatzen eta hobetzen jarraitzeko, indarkeria matxistari aurre egitea xede, emakumeen kolektiboekin eta kolektibo feministekin batera, bai halaber gizarte zibilarekin eta herritarrekin oro har”.

Konpromisoa, “gizarte-aldaketa estrukturala bul-

tatzeko” eta “gure ardura, indar politiko guztien eta erakundeen adostasunaren bitartez, beharrezkoak diren baliabideak eskura izan daitezzen”.

Borroka feministaren aldeko konpromisoa

EHBilduk aurkezturikoa borroka feministaren alde hartutako konpromisoa berresten du. Indarkeria matxistei aurre egiteko udal planerako eta 2018ko aurrekontuak definitzerakoan

berdintasun-unitateentzako beharrezko baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak emango zaizkie. Foru Aldundiarri eta Emakunderi eremu honetako aurrekontu partidak gehitzea eskatzen diete, “berdintasun-zuzendaritzak sendotzeko, epaitegietako genero-unitateak indartzeko eta indarreko legeria berraztertzeke konpromisoa hartzeko”. Hezkuntzako agenteei, “curriculum-lerroetan genero-berdintasuna sar dezaten” eskatzen zaie.

Larunbat honetan, Jostailu Erabilien Azoka

Etxean erabiltzen ez duzun jostailu bat baino gehiago izango duzu. Ez ahaztu, beste batek erabil dezake, Hitz Ahok larunbaterako antolatu duen Jostailu Erabilien Azokari esker. Urtero moduan, aurretik bideratuko dute bilketa:

- Abenduak 14, 15, 17:00-19:00 Jostailu erabilien bilketa Potxoenero Urdintxo gelan.
- Abenduak 16, 11:00-13:00 Jostailu erabilien azoka frontoian.

Ekimen honetan parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- Jostailuek osorik egon behar dute. Norberari hartzea gustatuko litzaiokeen moduan.
- Bilketa egunetan jasotzen dena musu-truk emango da. Horren truke, nahi izanez gero, txartel bat jasoko du bakoitzak azoka egunean bes-



Aurretik, jostailu erabiliak batzeko deia egin dute: abenduaren 14an eta 15ean Potxoenera eraman behar dira, 17:00etatik 19:00etarako tartean.

HIRU ARDATZ

Jostailu erabilien bilketa abenduaren 14an eta 15ean egingo da Potxoenero Urdintxo gelan. Azoka abenduaren 16an izango da, goizez, frontoian

te jostailuren batengatik aldatzeko.

- Azoka egunean jostailuak trukatzeko, 8 urtetik beherakoek, arduradun batekin parte hartu beharko dute.
- DVD eta antzekoek jatorrizkoak izan beharko dute.

Oharra: Azoka amaieran, bertan geratzen diren jostailu ez elektronikokoak eta pilik behar ez dituztenak Ez Itxi Begiak Elkarteak jasoko ditu.

Eguberrien bezperan, ekitaldi ugari Aginagan

Antxomolantxa Elkarteak urte amaierara arte antolaturiko ekitaldi zikloan hurrengo hitzorduak hauek:

Abenduak 16, larunbata

- 11:30 "Badut" ipuin musikatuak haurrentzat Aginagako ludotekan.
 - 17:30 DYA: "Gorputz higie-nea" clown saioa umeentzat Aginagako ludotekan.
- Antolatzailea: Antxomolantxa Elkarteak.

Abenduak 23, larunbata

- 09:00 Gabon kankak abesteko kalejira, Aginagako Eliza paretik abiatuta. Antolatzailea: Aginagako katekesi taldea.

- 18:00 Olentzerori ongi etorria Aginagako ludotekan: "Urte osoan zehar mendian gogor lanean ibili eta gero, menditik datorren Olentzerori ongi etorria egingo diogu Sekaña parean. Trikitilarien laguntzaz frontoi ingurura gerturatuko gara eskutitzak emateko, gaztain goxo-goxoak jaten ditugun bitartean". Antolatzailea: Antxomolantxa Elkarteak.

Abenduak 30, larunbata

- 17:30 Irrien Lagunak taldearen Kriskitin zart ikuskizuna. Kultur Agendan abenduaren 29 an agertzen bada ere, saioa abenduaren 30ean larunba-



DYAk clown saio bat eskainiko du larunbatean Aginagako ludotekan.

ta izango da, arratsaldeko 17:30ean hasita. Antolatzailea: Antxomolantxa Elkarteak.

Gaztelekukoak, gabonei begira

12-16 urte artekoek zuzenduriko gabonetako eskaintza prestatu du Gaztelekukoak, urtero moduan. Honatx lehen ekitaldiak:

Abenduak 21, osteguna

- 16:30 "Sukaldaritza tailerra: krep-ak" Gaztelekukoak, DBH2koentzat.

Abenduak 23, larunbata

- 16:00 "Got Talent, Gaitasuna dut, DBH1ekoentzat.

Oharra: "abenduaren 28an Txuri Urdinera (DBH1ekoentzat) eta urtarrilaren 4an Donostiara (DBH4koentzat) antolatu dituzten irteeretan parte hartzeko guraso baimenak Gaztelekukoak jaso behar dira".

Informazio gehiago:

gaztelekua@usurbil.eus
943 371 050

'Gatz, Titiritorro basatia', abenduaren 20an Sutegin

Maitena Illarramendik 4-5 urte artekoek zuzenduta ko titirishowa eskainiko du abenduaren 20an. Arratsaldeko 18:00etan, udal liburutegian bertan. "Okilen antzera, pago enborren barranean egiten dituzte euren habiak. Bertan babes-ten dira neguko hotzetik gaueko iluntasunetik, eta hantxe dira ere gutaz ezkutatzen. Bertzeko Titiritorroak dira! Nafarroako oiha-naren sakonean, izadiaren mirabe zein maitale diren izaki hori-berde hauen magia ezagutzera zatoz, egizu dantza ekaitzaren erritmoan, trumoi eta tximist arteko burrunba-saltsan abestuz. Bizkor! Gatz basatia zain duzu eta...".

Euskararen Nazioarteko Eguna

Idazlan hau egin dugu; izan ere, garrantzia handia ematen diogu euskarari, gure hizkuntza baita eta bizirik egotea nahi baitugu.

Euskararen eguna 1949an sortu zen eta ordutik aurrera Euskal Herriko mila txokotan ospatu ohi da. Abenduaren 3an ospatzen bada, Xabier Frantziskoren omenez da. Bera, Euskal Herriko zaindaria izan zen eta baita euskararen santu ofiziala ere. Abenduaren 3an hil zen eta horregatik data honetan ospatzen da.

Euskal Herriko eskola eta herrietan mila ekimen burutzen dira: bertso saioak, jokoak, kontzertuak, programa bereziak telebistan... Jende askok sare sozialetan “euskaraz bizi nahi dut” leloa edo argazkia jartzen du. Gero ordea, ogia erostera joaterakoan adibidez gazteleraz eskatzen dute. Honek erakusten digu, egun batean ospatzea ondo



“Egun batean ospatzea ondo dagoen arren, egunero erabili beharko litzateke euskara”.

DBH2KO IKASLEAK

“Euskara ez da maitatu behar, erabili egin behar da”

dagoen arren, egunero erabili beharko litzatekeela euskara. Gu, gazteok, prest gaude lekukoa hartzeko eta egunero euskaraz hitz egiteko. Eta

gogoratu: “EUSKARA EZ DA MAITATU BEHAR, ERABILI EGIN BEHAR DA”

DBH 2ko ikasleak.

Emakumeen Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Nahiago genuke idazlan hau idatzi behar ez bagenu. Hala ere, tamalez, beharrezkoa da oraindik ere. Azaroaren 25a pasa den honetan emakumeen aurkako indarkeriari buruz idatziko dugu.

Mundua eta gizartea aldatu egin omen dira, eta oraindik emakumeen aurkako indarkeriak hor jarraitzen du. Emakume asko gizonen menpe daude, eta horren ondorioz emakume horiek asko sufritzen dute. Azaroaren 25a izan zen emakumeen aurkako indarkeria salatzen den eguna. Ondo dago egun hori ospatzea, baina ez da nahikoa egun horretan morez janztea, ez eta WhatsAppeko perfilean kamisetaren baten argazkia jar-



“Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazten saiatuko gara eta desagertu arte ez dugu etsiko”.

tzea ere. Pentsatzeko modua aldatu behar da.

Guk zer egin behar den oso

argi dugu: emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazten saiatuko gara eta desagertu

arte ez dugu etsiko.

DBH 2ko ikasleak.



Bertako enpresako teknikoak, mantentze lanetarako erabiltzen dituzten autoekin.

Bertako igogailuak: mantentze-lan profesionalaren aldeko apustua

Ospakizunetan daude Bertako enpresan. Hiru urte beteko dituzte laster, eta badute zer ospatu: Euskal Herrian mantentze-lanak egiten dituzten enpresen artean gehien hazi dena da. Bizilagunen komunitate askok erabakitzen dute mantentze-lan enpresa aldatzea eta Bertakoren aldeko apustua egitea. Urtean, batez beste, 200 komunitatek egiten dute 10-15 urte arteko eskarmentua duten teknikarien aldeko hautua.

Hori da, gainera, Bertakok duen baliorik handiena: teknikariak. Eurek sortutako enpresa da. Beste leku batzuetan lanean jardun eta hango baliabideak ikusita, enpresa berria sortzeko erabakia hartu zuten pertsonak. Teknikari horiek 24 orduko zerbitzu erreala ematen dute; hau da, larrialdietan bakarrik barik, abisu guztiak kontrolatzen eta premiak betetzen dituzte, astelehenetik igandera, 24 orduz eta urteko 365 egunetan.

Dena den, eguneroko lan onari esker, egiten duten mantentze-lan

onari esker, matxurengatik jasotako abisuak oso gutxi dira. Teknikariek egiten duten lan onak, gerora dauden abisuen kopurua txikitu egiten du, nabarmen.

Euskararen garrantzia

Bertakok duen beste balio garrantzitsu bat euskararen erabilera da. Lehen momentutik euskaraz jarduten dute: aurrekontuak egiterakoak, komertzialen bisitatan, administraziokoe-kin berba egiterakoan, kontratuak idazterakoan... Asko eta ondo baloratzen dute bezeroek euskararen erabilera.

Eta behin Bertako aukeratu ostean, bezeroek askatasun osoa dute nahi dutenean kontratua eteteko. Kontratu libreak egiten dituzte. Urtebetekoak. Bezeroak engainatu barik eta iraupen-konpromiso barik.

Ia hiru urteko ibilbidean, bezero askok Bertako aukeratu dute eskaintzen dituen tarifengatik. Oinarrizko kontratua hileko 80 euro

Eskaintzen ditugun zerbitzuak, hilean 100 eurotik aurrera

- 24 orduko zerbitzua abisu guztientzat
- Pieza guztiak barne, orotariko zerbitzuan
- Iraupen-konpromiso gabeko kontratua
- Larrialdi telefonoa doan, instalazio guztietan
- Bakarrik itzaltzen diren LED argien instalazioa doan
- Efizientzia energetikoan oinarritutako ikuskapena

ingurukoa da eta arrisku orotakoa, hileko 100ekoa. “Prezio logikoak dira. Ez da normala Euskal Herriko enpresa batzuek 160 euro kobratzea arrisku orotako zerbitzua-rengatik eta inguruko eskualdeetan prezio hau ia erdira jaitea, bertan ditugun enpresa askok gure tarifa merkeagoak erabiltzen dituzte. Hori bai, Euskal Herri inguruan ditugun eskualdeetan”, diote enpresakoek.

Larrialdi zerbitzua

Ia hiru urteko ibilbidea laburra da, baina nahikoa izan da lorpen arrakastatsuetara heltzeko: bezero guztiek dute igogailuaren larrialdi sistema telefonoetara lotuta eta guztiek dituzte LED argiak. Argi kontsumoa murrizteko automatikoki itzaltzen diren argiak, alegia.

Duela ia hiru urte sortutako enpresa izanda ere, bere zabalkundea itzela izan da beste bailara eta lurralde batzuetara.

Bizkaian, Durangon eta Bilbon-biltegiak ditu Bertako enpresak. Hori horrela, ematen duten zerbitzua oso azkarra da, profesionala eta gertukoa. 94-652 39 35 telefonoan eska daiteke informazioa eta aurrekontua. Beti ere, lehen berba euskaraz jasota.



Otar-Goxo

E l i k a g a i a k

PROBA ITZAZU GURE ARKUME ERREA, TXERRIKUMEA, KAPOIA, TXahal eta ZAHAR AZPIZUNAK, TXULETA...



HARATEGIA - URDAITEGIA- FRUTADENDA

Zubiaurrenea, 2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

Hirukide elkarteak kide diren familiarizat...   



«Komunitate guztiek dute mundua beren hizkuntzaren kristaletik ikusi eta kontatu beharra, eta eskubidea»

Miren Amuriza

Izan **berria** laguna
Berria.eus/gerozugan

 **berria**
BERRIAGU

Abenduarekin batera iritsi zen elurra



Argazkia: Pako Agudo



Abenduko lehen egunetan, bazter guztiak edertu zituen elurrak.

Hurbilagoren Gabonetako Zozketa

4 Afari
bi lagunentzako
SAIZAR
Sagardotegian

50€ko
25 bale

Eskuratu zure tiketak
eta sartu saltokietan ipinitako zozketa-kaxetan.
Zozketa abenduaren 31ean egingo da Usurbilgo frontoian,
San Silvestre Herri Lasterketaren amaieran.

hurbilag 



Larunbat honetan Sutegin: “Aamen bea, gure sagardotegiya-2” antzezlan

2015ean Usurbilen Uda-
rregi Ikastolaren aldeko
KILOMETROAK gauzatu
zela eta, herri antzerki bat egin
zuten hainbat herritarrek. Ber-
tan duela 60 urteko sagardote-
gi bateko giroa antzeztu zuten.
Orain berriz, bigarren zatia
antzeztuko da: Beñardoren
sagardotegian hainbat egoera
berri gertatuko da 20 urte on-
doren: urtebete Ameriketara
artzain ibilitako Patxiren ibile-
rak, Beñardo sagardotegiko na-
gusiaren etorkizuna eta beste
hainbat gertakizun gertatuko
dira afera baten inguruan.



“Ordubetez barre egin nahi duenak aukera paregabea du”, antzezlanean kideek aditzera eman dutenez.

Antzezipena abenduaren
16an Sutegi Kultur Etxean
izango da 19:00etan. Sarrerak
3 eurotan salgai egongo dira
Txirristra tabernan eta Lizardi
liburudendan. “Ordubetez bar-
re egin nahi duenak aukera
paregabea du”, antzezlanean
kideek aditzera eman dutenez.

SARRERAK SALGAI
Antzezipena Sutegin
izango da arratsaldeko
19:00etan. Sarrerak 3
eurotan salgai egongo
dira Txirristra tabernan
eta Lizardi liburudendan

Gidoi lanetan Alberto Pika-
bea eta Pako Agudo aritu dira
gogor eta kementsu. Antzezleak
beriz honako hauek dira: Pau-
lino Ibargoien, Kerman Erre-
kondo, Iñaki Agirresarobe, Ixa-
bel Agirresarobe, Ainara Ullate,
Pako Agudo, Alberto Pikabea,
Mikel Elexpe eta Mikel Alkorta.

Umorez, euskaratik eta euskaraz

Mirari Martiarenak eta Idoia
Torregaraiak “Pakian daonai
pakian utzi!” izeneko ikuski-
zuna eskaini zuten lehen aldiz
Sutegin. Abenduaren 3an, Eus-
kararen Egunean, umorez aritu
ziren, euskaratik eta euskaraz.
Bertaratuak pozik, oholta
gaineakoak ere bai. Emanaldi
gehiagoren atarikoak izango al
Sutegikoak.



Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena, Sutegiko oholta gainean.

Igandean amaituko da Usoa Zumetaren erakusketa

Erakusketaz gozatzeko
azken egunak dira hauek.
Azken bi urteotan egin duen
lanaren erakusgarri da Sute-
gin batu duena. Usoa Zume-
taren estanzazioak margo-
lari ezberdinen koadroetan
oinarritzen dira. Honakoan,
JL Zumeta, Dora Salazar,
Koldobika Jauregi, Nestor
Basterretxea, Ainize Txopi-
tea, Edu Lopez eta Carmelo
Ortiz de Elgearen margoekin
osatutako lan grafikoak ipini
ditu ikusgai.

Formatu ezberdineko pie-
zak dira. Txikiak zein han-
diak, den denak, erosteko
moduan. Prezioak, 120 eta
700 euroren artean.

Abenduaren 17ra arte zabalik

- Aste egunetan: 17:00-20:00.
- Asteburuetan: 11:30-14:00/17:00-20:00.



Arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara dago zabalik. Asteburuan, baita goizez ere: 11:30etik 14:00etara.

Kim
MASAJE LEKUA
· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA
SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!
ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA 943 36 10 79

Igande honetan, San Tomas Azoka

NOAUA! Kultur Elkar-
tekoen eguberri au-
rreko egun handia ate
joka dugu. Igande honetan
ospatuko dugu San Tomas
Azoka. Ez dira faltako gunea
goxatzen duten ohiko osa-
gaiak. Zuen zain izango gaitu-
zue abenduaren 17an goizeko
11:30etik aurrera. Ez ahaztu
baserriar jantziak soinean ja-
rrita agertzeaz. Postuak, ipuin
kontaketa saioa, jan edana,
sari banaketak... Gogoan izan,
ostegunera arteko, abenduaren
14ra arteko tartea duzuela an-
tolatu ditugun urteroko txapel-
ketetarako babarrun eta sagar-
doa NOAUA!ra ekartzeko.

Datozkigun egunetako gi-
roan murgiltzeko festa polita
aurkituko duzue igande eguer-
dian frontoian. Gerturatu!

Abenduak 17, igandea

- 11:30 Irekiera. Ixabel Agirresarobe herritarra ariko da jaialdiko aurkezle lanetan.
- Goizean zehar, postuetan osteratxoa egiteko aukera.
- 12:30 Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa: "Neguko zopa". "Neguan sartuko gara eta zerbait behar izango dugu berotzeko. Zenbat eskertzen den salda beroa! Baina ba al dakigu zer klasetako zopa hartzen dugun? Hori jakin nahi baduzu zatoz eta kontatuko dizut!".
- 13:15ak aldera:
 - Nafartarrak taldeak Zube-roako ikastolak laguntzeko antolatu duen elkartasun kanpainaren amaierako ekitaldia.
 - Fotokolean parte hartu dutenen arteko otarren zozketa.
 - Babarrun eta sagardo txapelketetako sari banaketa:
 1. Sarituarentzat: 150 euro eta txapela.
 2. Sarituarentzat: 90 euro eta kopa.
 3. Sarituarentzat: 50 euro.



Lehiaketara aurkeztutako babarrun eta sagardo onenak aukeratu dituzte igandean.

LEHIAKETAK

"Gogoan izan ostegunera arte, abenduaren 14ra arteko tartea duzuela antolatu ditugun urteroko txapelketetarako babarrun eta sagardoa ekartzeko"

Postuak

- NOAUA! Kultur Elkartea: bazkidetza egiteko aukera, NOAUA!ko produktuak eskuratzeko aukera (tartean kantu-liburuxka berria, 5 euroren truke).
- NOAUA!ren fotokola: atara argazki bat euskararen lehoan. Trukean, Nafartarrak taldekoen Zuberoko produktuen otarra edota Errigoraren otarra irabazteko zozketan parte hartuko duzue.
- Nafartarrak taldea: Zube-roako ikastolak laguntzeko azken asteotan bideratu duten elkartasun kanpainako otarrak eskuratu ahalko dituzte aurrez eskatu dituztenek.
- Talogileak: presoen aldeko

laguntza biltzen duen taldea, talo goxoak prestatzen eta saltzen ariko da.

■ Gaztaingileak: oraingoan ere ez du hutsik egingo, gaztainak prestatzeaz arduratu ohi den herriko koadrila ezagunak.

■ Herriko ekoizleen postua: Aitziber Elortzak eta Jexux Agirresarobek arrautzak eta postreak jarriko dituzte salgai; Txerrizaleok Elkartek txerrikiak salgai izango ditu eta puzgarria ekarriko du. Urdaigako Urtinea lorategikoek pinuak, pazko loreak... izango dituzte salgai.

■ Udarregi Ikastolako ikasleen postua: ikasturte amaierako bidaiarako laguntza biltzeko, ikasleek prestatutako postreak salgai izango dituzte.

■ Azokako lehiaketara aurkezturiko babarruna ikusi eta sagardoa dastatu ahal izango duzue, Sagardo Egunaren Lagunak taldekoen eskutik.

Oharra

Baserriarrez jantzita etorri!

Antolatzaileak: NOAUA! Kultur Elkartea, herri eragile gehiagorekin elkarlanean.



Ikasturte amaierako bidaiarako laguntza biltzeta

San Tomas Azokako postuen artean, Udarregi Ikastolako DBH4-ko ikasleak aurkituko ditugu, etxean egindako postreak saltzen. Bertatik ateratako dirua, apirila amaieran Bartzelonara egin asmo duten ikasturte amaierako bidaiara bideratuko dute.

Abenduaren 22an ostirala, zinea Sutegin

Aurten gainera, bidaia gastuei aurre egiteko finantziario bide berri bat zabaldu dute: zine proiektzioak. Hurrengo emanaldia abenduaren 22an 19:00etan Sutegin; "Fénix 11x23". Sarrerak egunean bertan 2 eurotan salgai.

Eperra ikastolaren aldeko otarren banaketa

Zuberoako Eperra ikastola laguntzeko azken asteotan martxan izan duen elkartasun kanpainaren baitan eskatu dituzuen produktuak igandeko San Tomas Azokan jarriko duen postuan banatuko ditu Nafartarrak taldeak. Jaso duen laguntzaren berri emango dute bestalde, azokaren azken txanpan.

'Manez eta kobreak' Sutegin

Nafartarrez ari garela, kontzertu berezia antolatu dute abenduaren 22rako 22:00etan Sutegin. "Manez eta kobreak" taldekoak datoz Usurbilgo kultur etxera.

Presoen eskubideen aldeko ekimen ugari antolatu dira datozen egunetarako

1 1.000 lagun batu zituen joan den abenduaren 9an Parisko kaleetan, bakearen eta euskal presoen eskubideen alde "Bakea Euskal Herrian: orain presoak" aldarripean egin zuten manifestazio historikoak. Bakegileak eta Bake bideak eginiko deialdiari erantzunez, euskal presoek aplikatzen zaizkien salbuespen neurriak bertan behera uztea eskatu eta Frantziako Gobernuari Euskal Herriko bake prozesuan inplikatzeari alde egin zioten.

Euskal preso eta iheslarien eskubideak betearaztea eskatzeko ekimenek ez dute etenik izango hurrengo eguberrietan:

Abenduak 18, astelehena

■ 18:00-19:00 Abenduaren 24an Olentzero eta Mari Domingirirekin egingo den herri



Pariseko kaleak zeharkatu zituen mobilizazioan hainbat usurbildarrek parte hartu zuten. Tartean, ondoko irudiak helarazi dizkiguten herritarrok.



"Azken hamarkadetatik gaur egunera milaka izan dira beren aita edo ama (edo biak) espetxeetan zituztela hazi diren umeak. Kartzelan bertan jaio-tako haurrak ere badira, horietako bat Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga preso usurbildarren alaba, Xua. Gainera, berez egoera latz horiek dakarten zailtasunak areagotu egiten dira euskal preso politikoek eta euren senideek pairatzen duten dispersio politikarekin.

Problematika berezi horiez jardungo dute Iñaki Barrutia, azterketa sakona aurkeztu berri duen sikologoak eta Araitx Zubimendi, "Izar eta Sara etxera!" plataformako kide eta bera ere espetxean ama izandakoak. Horrez gain, Xuaren senideen testigantza entzuteko parada ere izango da, "motxilaren umeak" deiturikoei buruz bideotxo batzuk tartekatuz izango den solasaldian".

ABENDUAREN 19AN

19:30ean Sutegin,

"Espetxea eta umeak"

gaiari buruz mahaingurua.

Bideo batzuk tartekatuko dituzte mahainguruan

itzulia prestatzeko entsegua Udarregi Ikastolako Agerialde eraikineko musika gelan.

Abenduak 19, asteartea

■ 19:30 "Espetxea eta umeak" gaiari buruz mahaingurua Sutegin.

Gabonak, kantuz ospatzera

Abenduak 19, asteartea

■ 15:15 Mari Domingiri harrera egingo diote Zubietako Eskolan.

Abenduak 21, osteguna

■ Goizean zehar, ikasleen gabon kanten saioa Aginagako Eskolatik abiatuta.

■ 09:30 Udarregi Ikastolako LH eta DBH-koen gabon kantuen saioa. LH-koek Kalezarko eta Kaxkoko buelta egingo dute. DBH-koak Kaxkoko ariko dira kantuan.

■ 11:25 HH-ko haurren gabon kantuen jira, Agerialdetik frontoira.

Abenduak 22, ostirala

■ 12:00 Zubietako eskolako kideen gabon kanten saioa Zubie-

tako erreboten plazan. Ondoren, hamaiketako eta eskolak LH osoa eskaintzeko aukera eskuratu izana ospatuko dute.

■ 16:45 Olentzero, Napoleon astoa eta Mari Domingiren etorrera Haur Eskolara. 17:00etan 2-3 urteko haurren geletan harrera. Ondoren, jolastokitik gabon kantak abestuz frontoira.

■ 18:15-18:30 aldera Haur Eskolako haurrentzako askaria frontoian: musikaz giroturiko pintxo eta sagardo dastaketa. Antolatzailea: Haur Eskola.

Abenduak 23, larunbata

■ 09:00 Gabon kantu jira Aginagako Parrokiatik. Antolatzailea: Aginagako Katekesi Taldea.

■ 18:00 Olentzerori ongi etorria

Aginagako Sekaia parean. Trikitilariekin frontoira. Frontoian, eskutitz bilketa eta gaztain jana. Antolatzailea: Antxomolantxa Elkarte.

Abenduak 24, igandea

■ 12:00-13:30 Olentzero eta Mari Domingi euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko herri itzulia frontoitik. Antolatzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

■ 17:30 Gabon kanta jira Parrokia aurretik. Antolatzailea: Usurbilgo Salvatore Parrokia.

■ 18:00 Olentzeroren etorrera Puntapaxetik. Bukaera Dema plazan.

■ 17:50 Olentzeroa Santuenea Elkartetik. Antolatzaileak: Santuenea Elkarte eta gurasoak.

Eguberrietako deiak

Abenduak 28 osteguna

■ 19:30 "Pasaiko badia" dokumental Sutegin. Sarrera: doan. Antolatzailea: Herritar talde bat.

Abenduak 31 igandea

■ 20:00 Urte berriari preso eta iheslarien egoera konpontzea eskatzeko topa berezia Dema plazan. Antolatzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

Urtarrilak 13 larunbata

■ 17:30 "Elkarrekin aurrera egiteko prest gaude" manifestazioa Bilboko Kasillatik. Mobilizazioarekin bat egin du Usurbilen Nahi Dituguk. Autobus zerbitzua izango da Usurbildik. Izen ematea aurrez, ohiko tokietan.

Euskararen erabilera sustatzeko, auzolanerako konpromisoa



Abenduaren 3ko Euskararen Egunari aurre hartu zioten bi egun lehenago ikastetxeek. Udarregi Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasle eta hezitzaileen kantaldia ospatu zuten, elurra tarteko, frontoian eskaini zuten kantaldian.



Ez zegoen gai zerrendan aurreikusia baina aho batez erabaki zuten abenduaren 3ko Euskararen Egunari begira, EHBilduk ekarritako adierazpena aurkeztu eta bozkatzea. Aho batez onartu zuen udal ordezkariak, azaroaren 30eko osoko ohiko bilkuran.

Euskara auzolana delako, hurrengo 365 egunotan auzolanean aritzeko konpromisoa bere egiten du adierazpenak. Hizkuntza ohiturak aldatzeko bide luzean, euskararen aldeko gehiengo soziala aktibatzea beharrezkoa ikusten du; "euskararen lurralde guztietako administrazioak zein herri ekimena. Lurralde eta eremu guztietako erakundeak. Gizarte ekimeneko euskalgintzako taldeak zein bestelako esparruetakoak. Euskaldun osoak, euskaldun hartzaileak eta erdaldunak".

UDAL ADIERAZPENA

"Orain, eta hemendik aurrerako urteetan, euskararen erabilera etengabe eta bizi-bizi areagotzea dugu langintza nagusi"

Adierazpenak gaineratzen duenez, "une aproposa da administrazioek eta herri ekimenak auzolanean bide berriak zabaltzea, eta gehiengo soziala euskararen alde egotetik euskararen alde egitera eramateko. Euskara erabiltzera eramateko". Adierazpenak dioenez, "malgutasunez. Herri bakoitzaren errealiterata egokituz. Tokiko eragileekin urratsak adostuz. Parte hartzaile guztiak ahalduz".

Etorkizunerako erronka argia marrazten du adierazpenak: "Orain, eta hemendik aurrerako urteetan, euskararen erabilera etengabe eta bizi-bizi areagotzea dugu langintza nagusi".

erako urteetan, euskararen erabilera etengabe eta bizi-bizi areagotzea dugu langintza nagusi, ezagutzaren handitzearekin batera euskararen aldeko hizkuntza ohituren aldatzea sakona gauzatu dadin. Mingainak dantzan jartzeko premia dugu, eta, bistan denez, mundu aldakor honetan, kantu eta kontu berriak behar ditugu horretarako".

Euskaraz bizitzeko nahia kantuan

Abenduaren 3ko Euskararen Egunari aurre hartu zioten bi egun lehenago ikastetxeek. Udarregi Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasle eta hezitzaileen kantaldia ospatu zuten, elurra tarteko, frontoian eskaini zuten kantaldian. Jaione Eskudero irakasleak zuzendutako hitzorduan, euskal kantu eza-gunak abestu eta baten batekin dantzatzen ere ikusi genituen. Kantuan, urteko 365 egunetan

euskaraz bizitzeko nahia plazaratu zuten. Eguerdian LH-koek eta arratsaldean HH-koek Agerialdeko jolastokian.

Zumarteren deialdiak

Abenduak 13 asteazkena

11:00 Artzabalen. Puntapax eguneko zentroan kontzertua. Zumarteko 25 ikasle eta 7 irakasle.

Abenduak 16 larunbata

13:00 Errautsen Parkearen inaugurazioa. Zumarteko 5 irakasle eta 4 ikasle bertan arituko dira kantuan.

Abenduak 17 igandea

12:15 Donostiako Eguberri Festan Trikitilari-Panderojolek kalejira egingo dute.

Abenduak 30 larunbata

Zumarte Abesbatzak Errenteriako Gabon Abesti Jaialdi-Sariketan parte hartuko du.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Askatasuna plaza izotz pista bilakatuko da eguberriotan

Hiriburura patinatzerakoan beharrik ez gabon hauetan, Usurbilen bertan izango baitugu izotz pista; Askatasuna plazako estalpean hain zuzen. Eguberriotako berrikuntza nagusia izango dugu, dezenteko zirrara sortuko du ziur baten baino gehiagoren artean. Hurbilago Usurbilgo Ostalari eta Merkatarien Elkar-teak antolaturiko gunea zabalik izango da abenduaren 22tik urtarrilaren 7ra ordutegi honetan: 11:00-13:00/17:00-20:00.

Izotz pistaarako sarrerak aurrez merkeago eskuratu ahalko dituzue Hurbilagoren saltokietan, 1,5 eurotan hain zuzen. Bestela, izotz pista bertan 3,5 euroren truke.

San Silvestrerako izen ematea
Izena ohi bezala, aurrez eman ahalko duzue hurbilago.com atarian edo elkarte bereko establezimenduetan. Hitzordua betikoa; jai giroan ospatuko



Izotz pistaarako sarrerak aurrez merkeago eskuratu ahalko dituzue Hurbilagoko saltokietan.

IZOTZ PISTA, ORDUTEGIAK

Abenduaren 22tik urtarrilaren 7ra zabalik, ordutegi honekin: 11:00-13:00 / 17:00-20:00

den lasterketa, abenduaren 31n 17:00etan frontoitik. Antolatzailerak: Hurbilago.

Usurbilen erosteagatik, opariak
Urtero moduan, Usurbilen

erosketak egitea saritu nahi du Hurbilago Elkar-teak opari ederrekin. Datozen asteotan, elkarteko kide diren establezimenduetan erosketak egitearen truke, txartelak eskuratu ahalko dituzue. Saltokietako kaxetan sartu eta abenduaren 31ra arte itxaron. 8. Hurbilago San Silvestre Herri Lasterketaren amaieran, frontoian, 50 euroko 25 bale eta Saizar Sagardotegian dastatzeko 2 laguntzako 4 afari zozketatuko dituzte.



Arbitraje hastapenerako ikastaroa. Aurreko zubi astean egin zuten Oiarde Kiroldetgia, Gipuzkoa Eskubaloi Federazioaren argazki honetan ikus daitekeenez.

Eskubaloia

Kiroldetgia

Abenduak 16, larunbata

- 10:00 Infantil neskak, Gipuzkoa: Udarregi A-Ereintza.
- 11:15 Infantil neskak, Gipuzkoa: Udarregi B-Aloña Mendi.
- 12:30 Infantil mutilak, Gipuzkoa: Udarregi A-Pulpo.
- 16:15 Kadete mutilak, Territoriala: Usurbil K.E.-Arrasate.
- 18:00 Jubenil mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Urduliz.

Futbola Haranen

Abenduak 16, larunbata

- 10:00 Infantil mutilak: Usurbil F.T.-Vasconia C.D. B
- 12:00 Kadete neskak: Usurbil F.T.-Arizmendi K.E.
- 15:30 Jubenil mutilak: Usurbil F.T.-Trintxerpe C.D.
- 18:00 Erregional mutilak: Usurbil F.T.-Segura K.E.

Abenduaren 17an, Ibardin-Hendaia irteera

Abenduaren 17rako deitu du Andatza M.K.T.-k urteko azken txangoa; Ibardin-Hendaia artekoa. Goizeko 07:30ean abiatuko dira autobusez Oiarde Kiroldetgitik.

Izen-ematea, abenduaren 13a baino lehen

Irteerarako izena beraz aldeztu aurretik eman beharra izango da, abenduaren 13a baino lehen.

Informazio gehiago:
andatza.com

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

tzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenerik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketari lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketari lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezaqutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Apropoza pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketari, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zain-

tzen edo garbiketari lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatría laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa

aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketari lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, orduka lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketari lanak, tabernan arraskan aritze-ko,... 688 642 835/ 697 887 581.

BESTELAKOAK

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Gitarra klaseak ematen dituen pertsona baten bila gaude. 657 795 378.

Irailaren 20an, goizeko 9:30ean Donostiara doan Usurbilgo autobus geltokian poltsa gorri batean gaitza bakero batzuk utzi nituen. Norbaitek ikusi edo hartu badu deitu, 657 711 335 (Maite).

Irailaren 13an katuratua txiki bat (ninfra) galdu da. Txuria eta eskubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadorea salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikoko egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburukak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ihena Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arretoa ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 14 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 15 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 16 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 17 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 18 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 19 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 20 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Abenduak 14 - abenduak 24

Osteguna 21 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 22 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 23 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 24 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda abendua

15 ostirala

- **Jostailu Erabilien Azokarako material bilketa.** 17:00-19:00. Potxoenero Urdintxo gelan.

16 larunbata

- **Jostailu Erabilien Azoka** 11:00-13:00 frontoian.
- **Muxurbilek sortutako laburmetriak.** 13:00ean Sutegin.
- **Errautsen Parkearen inaugurazioa.** 13:00ean hilerri berriko Errautsen Parkean.
- **"Aamen Bea II"** antzerkia 19:00 Sutegin.

17 igandea

- **Ibardin-Hendaia irteera** 7:30ean Oiardotik autobusez (aurrez eman behar zen izena).
- **San Tomas Azoka.** Goizez, frontoian.
- **Haurrentzako zinea Aginagan: "Winkyren zaldia".** 17:30ean Sutegin.

GuraSOSek 'Hitzartu' ekimena aurkeztuko du larunbat honetan

A benduaren 16an larunbata, GuraSOS taldeak Hitzartu izeneko parte-hartze prozesua aurkeztuko du. Donostiako Eureka Zientzia Museoa egingo da ekitaldia, goizeko 11:00etan hasita.

"Hitzartu Gipuzkoako jendarte zibilak antolatutako parte hartze prozesua izango da. Gipuzkoarrok aukera berri baten aurrean gaude: behingoz, foro irekia eta anitza bat osatu nahi dugu, hondakinen inguruan ditugun kezken, jakin minen eta iritzi guztien gainean hitz egiteko", hedabideetan zabaldu duten oharrean aditza eman dutenez. "Aniztasuna, elkarrizketa, informazioa, eztabaida eta



Donostiako Eureka Zientzia Museoa egingo da ekitaldia, goizeko 11:00etan hasita.

parte hartzearen bitartez, Hitzartuk hondakinen arazoari konponbide adostua eta demokratikoa eskeintzea du helburu, beti ere kohesio soziala, ingurugiroa, osasunaren babesa eta Europako araudia oinarri eta ardatz hartuta".

Usoa Zumetaren azken lanak Sutegin ikusgai

Usoa Zumetak estanpatzaile lanetan ibilbide handia osatu du. Bere azken lanak ikusgai dira Sutegin.

- Epea: abenduak 17ra arte.
- Orduetgia: astelehenetik ostiralera: 17:00-20:00. Asteburutan: 11:30-14:00 eta 17:00-20:00.

Antxomolantxakoen bi hitzordu Aginagan

Larunbat honetan, bi ekitaldi antolatu ditu Antxomolantxa elkarteak:

- 11:30 "Badut" ipuin musikatuak haurrentzat Aginagako ludotekan.
 - 17:30 DYA: "Gorputz higienea" clown saioa umeentzat Aginagako ludotekan.
- Antolatzailea: Antxomolantxa Elkartea.

Datozenak

Mahai ingurua:

'Espetxea eta umeak'

- Abenduak 19 asteartea.
- 19:30ean, Sutegin.
- Antolatzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

'Gatz, Titiritorto basatia' titirishowa

- Abenduak 20 asteazkena.
- 18:00etan Sutegiko udal liburutegian.
- Maitena Illarramendik 4-5 urtekoei eskainitako saioa.
- Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.

'Pasaiako badia' dokumentala emango dute Sutegin

1984ko martxoaren 22an Espainiako Poliziak Komando Autonomo Antikapitalistetako lau kide hil zituen Pasaietan, eta han gertatu zenari buruzko kontakizuna egin dute Oinatzak Produzioak taldeko kideek: Xabier Otamendik, Yuri Agirrek eta Erik Aznalek.

- Abenduak 28, osteguna.
- 19:30ean, Sutegiko auditorioan.
- Sarrera: doan.

ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Inaki
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

600 024 825

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO



Kenia



943 373 613

IRTEERA MAIATZEAN

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.

2018
Ilargiaren
Egutegia

Jakoba Errekondoren eskutik
baratzea, fruitu arbolak, jardina eta basoa
Pello Zabalak aukeratutako esaerak
Maria Thunen egutegi biodinamikoko ekarpenak barne

Alkartasunaren dendan salgai eta
on line www.alkartasuna.eus webgunean

San Tomas eguna ospatzeko deialdia



Babarrun eta
sagardo lehiaketa



Abenduaren **17an**
igande goizez

- Ixabel Agirresarobe **ipuin kontalaria 12:30**
(4-10 urte bitarteko umeentzat) DOAN
- Gaztainak** bertan eginak dastatzeko aukera ·**Taloak**
- Noaua!ko postua** eta **photocall** (zozketarekin)
- Gozogintza** postua (Udarregi) ·**Herriko ekoizleen** postuak



Utebe Urtza



noaua